

**AUTOEBALUAZIOA****V. MODULUA: SENDAGAIEN ADMINISTRAZIOA NERBIO SISTEMA ZENTRALEAN**

1. Sendagaien administrazioa nerbio sistema zentralean:

- a) Ohiko administrazio bideak erabiltzen direnean farmakoek NSZ-era heltzeko duten gaitasun ezak administrazio-bide hau erabiltzea justifikatzen du
- b) Diagnostikoan bakarrik erabiltzen da, eta ez sendagaiak administratzeko
- c) Ohiko administrazio bidea da, gihar-barnekoa baino gehiago erabiltzen dena
- d) Farmakoak espazio epiduraleko kapilarrek zeharkatuz odolera iristen direnez ez da oso bide eraginkorra

2. Tekka-barneko bidearen konplikazio nagusia:

- a) Zefalea
- b) Hipotentsioa
- c) Hematomak
- d) Trauma, orratzarengatiko lesioak

3. Zertan datza bide epidurala?

- a) Farmakoaren administrazioa espazio epiduralean
- b) Farmakoaren administrazioa likido zefalorrakideoan
- c) Farmakoaren administrazioa bentrikulu-barnean
- d) Farmakoaren administrazioa bizkarrezur-muinan

4. Zertan datza teka-barneko administrazioa?

- a) Farmakoaren administrazioa araknoide-azpiko espazioan
- b) Farmakoaren administrazioa espazio epiduralean
- c) Farmakoaren administrazioa duramadre eta araknoides mintzaren tartean
- d) Farmakoaren administrazio zuzena bizkarrezur-muinan

5. Farmako lipodisolagarri baten teka-barneko administrazioa:

- a) Eraginaren iraupena farmako hidrodisolagarri baten administrazioarekin lortzen dena baino laburragoa da
- b) Eraginaren iraupena farmako hidrodisolagarri baten administrazioarekin lortzen dena baino luzeagoa da
- c) Farmakoa duramadrean zehar motelki barreiatzen da
- d) Odol-hodietara ia ez dira pasatzen espazio epiduralean

6. Farmakoen teka-barneko administrazioaren abantaila nagusia:

- a) Dosi baxuen administrazioa ahalbidetzen du, efektu kaltegarrien probabilitatea gutxituz
- b) Bai farmako hidrodisolagarriak bai farmako lipodisolagarriak administratu ditzakegu
- c) Farmakoa likido zefalorakideoan administratzean, farmakoaren pisu molekularrak ez dauka bere dispozizioan inolako eraginik
- d) Oso pH altua edo baxua duten disoluzioen administrazioa ahalbidetzen du